

Arranoaren bakarraldia

Agus Perez

Donostiako Gazteszerna azken besaulkiraino beteta zegoela aurkeztu du Lasala konpainiak bere lehen lan luzea. Judith Argomanizek eta Jaiotz Osak sortutako konpainia indar handiz sartu da Euskal Herriko dantzaren panoraman 2014an *Hooked* izeneko pieza aurkeztu zutenetik.

Hasiera harrigarri haren ostean *Lauesku* sortu zuten, pilota jokoa gainera gogoeta eginez –lehen bezain mirengarria suertatu zen–, eta jarraian goia jo zuten, *Gizon haiek* pieza bikaina Dantzas konpainiaren *Aureo* egitarauan txertatuta. Ordurako ongi frogatuak zituzten beren sormena, beren ekimena eta beren dantzarako gaitasuna, eta heldua zen lan luzeetarako jauzia.

Ameriketako arrano buruzariak hitz egiten digu *Now* izeneko lehen lan luzearen esku-programak: kondairak dioenez, oso bizi luzea daukate arranoak, baina lehen zahartzarora iritsita, bakarraldi gogor bat igaro behar dute, moko eta atzapar zaharrak apurtu eta berriak hazi arte, bide horretatik bigarren helduaro bat lortuko dutelako.

Idea horretatik abiatuta, orain arteko bidez eta geroan

Gabo Punzok sortutako argiek, gune fisikoak ez ezik, giro onirikoak eta atmosfera subliminalak sortu dituzte

espero duenaz eraiki du Judith bere oraingo lana. Lonpa Martikorena eta Eduardo Andresen eremu eszenikoak terma erromatar bat ekarri dit gogora, agian bere soiltasun estetikoarengatik, agian bainuontzi bat zegoelako bazter batean. Bat-batean agertu dira taldeko bost dantzariak rock indartsu baten eraginpean, eta hasierako pasarte labor horrek ikusleentzako entusiasmua piztu du, jatorrizko bikotearen ezaugarri ezagunak agerian utzi eta bider bost multiplikaturik ikusi ditugulako. Ordea, jarraian etorritako duo luze-luze eta geldoak asko zeukan perflitzeko –asko

KRITIKA Dantza 'Now'

Konpainia: Lasala. **Zuzendaritza eta koreografia:** Judith Argomaniz. **Argien diseinua:** Gabo Punzo. **Jantziak:** Xabier Mujika. **Dantzariak:** Judith Argomaniz, Carla Diego, Rafke van Houplines, Sergio Moya, Jaiotz Osa. **Lekua:** Donostiako Gazteszerna. **Eguna:** Ekainak 4.

benetan –, eta haren inguruan eratu diren irudi onirikoek ezin izan dute ezabatu nesken bikoteak sortutako irudi findu gabea.

Hortik aurrera, aldiz, beste pasarte batzuk etorri dira, musika esanguratsua gogor batzuek lagunduta, eta haien artean belaunaldi bakoitzaren berezitasunak agertu dira, eszenaren parte izan den jende edadetuen eta mutiko baten presentziaren bidez. Haietan guztietan gailendu da Argomaniz/Osa bikoteak sortutako lengoia koreografikoa, kirol, esgrima eta borroka-arteetatik finezia handiz edaten duena, eta haietan guztietan ikusi da kementsua, arina, bihurtasuna eta sinkopatua dela hain gustukoa dugun dantza estilo berri hau. Hala ere, lehen lan luze honetan agerian geratu dira haren mugapenak, eta iruditu zaigu nolabaiteko efektismo bati emanak eta funtsik gabeak zirela dantza pasarteak, koreografoak benetako muinean sakonduko ez balu bezala.

Ordea, aipamen berezia merezi dute jantziek –gris askoren gamakoak hasieran, eta horiak amaierako eszenan– eta, batez ere, argien diseinua. Gabo Punzok sortutako argiak zurian oinarritu dira gehienbat, hori koloreko gune puntual batzuekin batera, eta gune fisikoak sortzeaz gain, giro onirikoak eta atmosfera subliminalak sortu dituzte. Dantzaren kalterako izango ez balitz, nik esango nuke emanaldiaren protagonista ere izan direla.

Ikuskizun bitxia

Jesus Mari Begoña

Benetan zaila da halako ballet klasikoak gure artean ikusi ahal izatea, eta are zailagoa da oraindik orkestra batekin zuzenean entzutea, kontuan hartuta martxan jartzen diren baliabideen balioa: dantzari edo musikari asko, eszenografia... Hala, eskertzekoa da bai Arriaga Antzokia eta bai BOSek mirari hau gauzatzeko egin duten ahalegina. Harrigarria da, halaber, Espainiako Dantza Konpainiak, Jose Carlos Martinezen zuzendaritza-pean, dantzagintza klasikoan lortu duen maila, kasu honetan, Errusiako balletetik eratorritako lan honetan. Izan ere, Cartagenako koreografoa hiru ekitaldiko bertsioan inspiratu zen, eta, beste aldetara batzuen artean, Espainiako folkloretik hartutako fandangoa eta boleroa erantsi zizkion obrari.

Espainiako Dantza Konpainiak talde sendoa, uniformea, preziosista eta diziplinatua osatzen du dantzaren alorrean nahiz mimuman. Dantzarien artean, bikotea-

KRITIKA Balleta 'On Kixote'

Musika: Ludwig Minkus. **Koreografia:** Marius Petipa, Alexander Gorski eta Jose Carlos Martinez. **Dantzariak:** Espainiako Dantza Konpainia. **Musika zuzendaria:** Manuel Coves. **Bilboko Orkestra Sinfonikoa. Lekua:** Arriaga antzokia, Bilbo. **Eguna:** Ekainak 3.

ren figura goraiatu beharrekoa da, *pas de deux* ballet klasikoaren su-froga baita, batez ere *prima ballerina*-rentzat. Seh Yun Kim korearra teknika handiko dantzaria da, eta behatzen gaiten lanean oso ona –*demi plié* 5. posiziotik hasita *relevé*-ra pasatu zen, 2. posizioan bukatzeko, eta aurrera jarraitzeko...-. Aipatze-koak dira, beste askoren artean, pasarte horretan egin zituen 32

bira-aldaki –*fouettés*– paregabeak, azkenean *temps de poisson* batean bikotekidearen besoetan amaitzeko.

Haren bikotekide Alessandro Rigak bere onena eman zuen, eta ongi egindako lana azaldu; zutabe egokia izan zen emakumearentzat. *Pas de deux* pasarte berean, eder eman zuen jauzien bilduma: *temps de poisson*, hiru *tours en l'air*, eta trebezia eta oreka handia eskatzen dituen *Grand Jeté*-a.

Asko gustatu zitzaizkigun ijitoen buruzagiak egiten zituen jauziak, neska ile-hori baten dantza delikatuak, toteroen buruzagiaren dantza harroa... Ia akatsik gabe sumatu genuen dantza taldea, bai batera aritzeko unean, bai beso eta belauen posizioetan: *port de bras*, *arabesques*, *pas de chat*, *jetés*... Kontuan hartzeko izan da tutudun taldea On Kixoteren ametsean, laborarien dantzak graziaz eta bateratasunez igurtziz, bikoteak, hirukoteak, laukoteak...

Berebiziko garrantzia du erritimoak dantzetan eta, horretan, meritu handia izan zuen Manuel Coves zuzendariak, luxuzko BOS batekin, baltsak, polkak, mazurka, fandangoak, jota modukoak, boleroak, martxak... dozenaka eritmotako musikak dantzari ongi egokitzen jakin baitzuen.

Irudia • Baiona



Katalina Erausoren bizitza, antzeztua

Katalina Erauso pastorala Baionan eskaini zuten herenegun, Lauga aretoan. Ikuskizunera 3.000 lagun inguru joan ziren. Pastoralak XVI. mendeko Katalina Erausoren bizitza kontatzen du, bere askatasuna lortzeko munduan zehar borrokatu zena. Maite Berrogain idazleak egin du pastorala, eta orain dela hiru urte hasi ziren pres-taketekin 150 bat dantzari, musikari eta artista. Ikuskizuna baino lehen, kalejira eta bazkaria egin zituzten Baionan. Hurrengo emanaldia irailaren 3an izanen da, Donostian. BOB/EDME